

Kulturaz ari garenean zertaz ari gara. Galdera horri erantzuteko, kulturaren definizioaren, praktikaren eta botere harremanen sustraiko azterketa egitetik abiatzea beharrezkoa da, sakonean gertatzen dena ondo ulertzeko. Horixe egin dute, nor bere eremutik baina bien artean osagarri, Iratxe Retolaza kultur ikerlari eta eragileak eta Jon Urzelai kultur kazetari eta soziologoak, artikulu nagusi banatan.

Arrazakeriaren aurkako neurrietako bat zurrumurruak, itsukeriak eta aurreiritziak desgaitzea da; izan ere, menderakuntza prozesu ororen arrakasta menderatzaileak menderatuaren gainean eraikitako gezurrak menderatuak berak sinetsaraztean eta 'natural' eta 'berezkotzat' harraraztean oinarritzen da. Pierre Bourdieu soziologoak 'indarkeria sinbolikoa' deitu zuena. Lehen bezala orain, eta menderakuntza eremu batean bezala besteetan ere, indarrean daude indarkeria sinbolikoaren mekanismoak, baita euskal kulturari dagokionez ere. Bestalde, eta oinarri beraren beste adar gisa, euskal kultura zer den eta, bereziki, zertarako erabili nahi dugun eztabaida ere irekita dago, nabarmen, esate batera, kultura ekonomiaren motor gisa ustiatu eta turistifikaziorako erabiltzen denean.

Euskarazko kulturarekiko kultur aurreiritziak, kultur zurrumurruak eta itsukeriak, arrainarentzat ura nola, gurean arnasten dugun oxigenoa dira oraindik ere hein handi batean. Indarkeria sinbolikoari sinboliko izateak ez dio larritasunik kentzen; are, larriago izan daiteke, kasik oharkabean pasatzen baitzaigu eta, haren ondorioz, praktika sozialak, hitzarmen soziopolitiko eta materialak, legeak, gizarte antolamenduak eta beste eraikitzen baitira. «Ez zait euskal musika gustatzen» dioena horren guztiaren biktima eta borrheto da alde berean, autosuntsiketaren jopu eta eragile. Hori guzti hori abiapuntu hartuta, Iratxe Retolazak azterketa zoli, mami-tsu eta beharrezkoa osatu du, kulturaren gaineko kontsentsu eta eraikuntza ideologiko eta sozialek hezkuntza sisteman zer ondorio dituzten arakatu eta gero.

Jon Urzelai «zertaz ari gara kulturaz ari garenean?» galdera maiseatu baina beharrezkotik abiatzen da, eta azken hamarkadetan –bereziki, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan– erakunde publikoeta-

tik kultura hein handi batean turismorako tresnatzat hartu izanaren etnografia xehea egiten du, eta, horrekin, kultur politika horiekiko kritika argia. Goia jo ote du eredu horrek, galdetzen du, eta kulturaz aritzeko beste esanahi batzuen beharra azpimarratzen.

Kultura hainbat kultur diziplinen multzo gisa ere ulertzen dugunez, Oihana Aranak literatura, Gorka Erostarbek musika, Jone Rubiok artea, Andoni Imazek zinema, Eli Pagolak bertsoa eta Libe Mimenzak sare sozialak izan dituzte aztergai, ez horregatik, gorago aipatutako azterketa kokaturik eta sakonik gabe. Denak irakurri beharrekoak, denek zer pentsatua ematen dutenak. Berdin, zortzi marrazkilarik –Eider Eibar Zugazabeitia, Axi, Exprai, Patxi Gallego, Paula Estevez, Mariñe Arbeo Astigarraga, Dani Fano eta Joseba Larratxe Berazadi–, horiek ere eremuz eremu, egindako artikuluko grafikoen ere. Josu Martinezek zuzendu eta Baigorriko ibarreko herritarrek gorpuztutako *Bizkarsoro* filmaren gaineko irudi ikerketa dakar kontrazalera Dom Campistronek, euskararen eta euskal kulturaren kontra erabilitako indarkeria sinbolikoaren kontaketa historikoa hori ere. Sortzaile bikain adina kulturaren azterlari bikain ditugula berriro berresten da.

2022ko euskal liburugintzaren gaineko ikerketak ixten du zenbaki hau. 46. ikerketa da honakoa, Xabier Eizagirrek egina. Berri baikorra dakar, lerroburu batera ekartzera: pandemiaren bi urte gogorrenak gainditu ondoren, goranzko joerari heldu dio berriro euskarazko liburugintzak. Zurrumurruen kontrako antidoto onena ekitea baita.